Irailetik
abendura

2017

# EGITARAUA

DONOSTIAKO
EMAKUMEEN
ETXEA



“sufragistak 1917
coquan Workhouse
prisiori”



# EMAKUMEEN ETXEA

Emakume askoren eta desberdinen topaketarako, prestakuntzarako, gogoetarako eta ekintzarako espazioa da Emakumeen Etxea. Zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskeitzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan eratu da Etxeko jarduerak kudeatzeko. Denborarekin, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira beren interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu. Guztiak irekiak dira bazkideek parte hartu ahal izateko.

## ELKARTEAREN BATZORDEAK

ANTIAGRESIONES + ARTIKULAZIOA + ZINEA + BATUKADA + TEKNOLOGIA + EKOFEMINISMOA + XAKE + DAMBORRADA + LITERATURA + EDERLEZI ABESBATZA



KOGESTIOA

Kudeaketa konpartitua

Berdintasun Saila | Emakumeen Etxea Elkartea

## Lan hildo orokorrak

- INDARKERIA
- AUTONOMIA EKONOMIKOA
- ARTIBISMOA
- KULTURARTEKOTASUNA
- SEXUALITATEA
- AUTONOMIA ETA MAKINAK

# / 01

## AHALDUNTZE TALDEAK

- ZAPALDUEN ANTZERKIA + AUTODEFENTSA FEMINISTA + INDARKERIARI GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK
- DENBORAREN BANKU FEMINISTA
- ARTE PLASTIKOAK + PRAKTIKA PERFORMATIBOAK + TALDE KANTUA + XAKE + VENTANERAS + BATUKADA + HIRI LITERARIOAK ETA BEGIRADA FEMINISTAK + IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA
- KULTURARTEKO GUNEA

# / 02

## TAILERRAK

- SEXUALITATEA
- RAP FEMINISTA + KLOWN + ARTEAREN HISTORIAREN BEGIRADA FEMINISTA
- BRICOLAJERA

# / 03

## ZERBITZUAK

ETXEKO LANGILEENTZAKO AHOLKULARITZA+ LEGE AHOLKULARITZA + AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA GIZARTE ESKU-HARTZEA + “IGUÁLATE” IKASKETAK HOMOLOGATZEKO KANPAINAK + BILUZIK MUNDURA + NORBANAKOAREN JABEKUNTZARAKO GUNEA + GIZARTE AHOLKULARITZA + ORDENAGAILU ETA INTERNET + AHOLKULARITZA, LAGUNTZA TALDEA

# AHALDUNTZE TALDEAK



## INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Dinamizatzailea: Ana Murcia

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte beren artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira: zer gertatzen zaien jakitea, pozarekin konektatzea, nork bere gorputza zaintzea, desirekin duten harremana ezagutzea eta taldearen laguntza jasotzea, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko.

Eguna: Osteguna
Ordua: 16:30 -18:30
Hasiera: Irailak 14
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea:
Berdintasun Saila





## ZAPALDUEN ANTZERKIA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza

Eguna: Asteazkena
Ordua: 18:30 -20:00
Hasiera: Urriak 18
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Augusto Boalek Brasilen “Zapalduen Antzerkia” deituriko antzerki metodologia ezagutuko dugu. Teoria eta gorputz espresioa erabiliko dira eta “egunerokotasunean ematen diren zapalkuntzetan” arakatuko dugu, aldaketa pertsonala eta soziala helburu.



## AUTODEFENTSA FEMINISTA

Formatzailea: Naroa Argoitia

Helburuak:
Emakumeok indarkeriarekiko ditugun bizipenak konpartitu eta biltzea. Esperientzia ezberdinak partekatu eta iritzi trukaketa egitea.
Elkar entzutea eta beldur eta emozio ezberdinei buruz lasai hitz egiteko tartea eta espazioa eskaintzea.
Indarkeria egoerak, eraso ezberdinen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea.
Autodefentsaz aritzea eta autodefentsaz ulertzen duguna komunean jarri eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea.
Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea. Bai indibidualki martxan jarri beharrekoak eta baita kolektiboki eraiki beharreko erantzun, dinamika, alternatibak pentsatu. Nola ekin?
Emakumeon arteko sarea osatu eta gure arteko aliantzak sendotu, aurrera begira taldea modu autonomo eta horizontalean jarraitzeko aukerari ateak irekiz.

Eguna: Ostirala
Ordua: 18:00 - 20:00
Hasiera: Irailak 29
Hizkuntza: Euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea





## PRAKTIKA PERFORMATIBOAK: GORPUTZAK, PROZESUAK ETA ZAINTZAK

Formatzailea: Amaia Nabaskues eta Ana Revuelta

Eguna: Asteartea
Ordua: 18:00 -19:30
Hasiera: Urriak 3
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Tailer honetan gorputza izango da protagonista. Gorputzei tokia utziko diegu, diren bezala izateko. Etzan, arnasa hartu, luzatu, ibili, besoak zabaldu, begiratu, pentsatu... Gorputza eraikuntza soziala dela ulertuta, begirada feminista batetik aztertuko dugu, sexu-genero sistemari dagozkion aspektuak nola instalatzen diren.

* Gorputz guztiek parte hartu dezakete tailerrean, ez da beharrezkoa dantza edo antzerkian esperientziarik izatea.



## IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Irakurle talde honetan pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu, eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai.

Eguna: Asteartea
Ordua: 19:00 -20:30
Hasiera: Urriak 17
Hizkuntza: Euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

## TALDEKO KANTUA

Formatzailea: Bettina Aragon

Emakumeen Etxeko koru proiektua adin, jatorri eta eskarmentu desberdinetako emakumeen ahotsak batzeko desiotik sortzen da. Koru honetan jabetu nahi gara eta kantu koralaren bidez emakumeen osasuna sustatu nahi dugu. Herritartasun desberdinak batu nahi ditugu, jatorri desberdinetako abestiak abestuz.

Eguna: Ostirala
Ordua: 19:30 -21:00
Hasiera: Irailak 22
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



## XAKE

Formatzaileak: Julia Gallego, Eli Agirre eta Leire Kruz

Emakumezko xake jokalariak sortzea eta bultzatzea du helburu talde honek. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzen dira.

Hasiera: Urriak 9
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



**ORDUAK:**

| | | |
|---|---|---|
| Astelehena: | Asteartea: | Asteartea: |
| 19:00 -21:00 | 18:30 -19:30 | 19:30 -20:30 |
| Federatuak bakarrik | Hastapen maila | 1. eta 2. maila |



## VENTANERAS, LA PRECUELA

Formatzailea: Mertxe Tranche

Emakumeen tradizio literarioa ezagutzea, garai bakoitzean gailetzen zen kulturarekin emakume idazleek eratzen zuten elkarrizketa eta jasandako erazoez gain nola lortu zuten honi bizirautea, honek irakurle bezela hobeto bideratzen gaitu. Ez da iraganeko ezagutza bat soilik, garaikideak ez diren emakume idazleen egingizuna ulertzeko modua da. Defentsa bat da...plazer bat.

Eguna: Asteartea, hilabetean behin
Ordua: 19:00 -21:00
Hasiera: Urriak 3
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Berdintasun Saila

## VENTANERAS

Formatzailea: Mertxe Tranche

Eguna: Osteguna, hamabost egunean behin
Ordua: 19:00 -21:00
Hasiera: Urria
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Berdintasun Saila

Datorren ikasturterako lantegi berri bat sortuko degu, “**Berri-berriak**” izenekoa. Aztertuko ditugun liburuak XXI. mendean idatzitakoak izango dira, edozein kultura eta herrialdetakoak, betiere gaztelaniaz argitaratuak. Oraingoez bestelako liburuak izango dira, beste ikuspegi baten arabera hautatuak; izan ere, orain arte, lantegi guztiak tematikoak edo geografikoak izan dira. Orain, ikuspegia kronologikoa izango da, pentsatuz emakume idazle berriak eta haien kezkak ezagutzea lagungarri izango zaigula emakumeok gaur egun ditugun eztabaiden inguruan hobeto hausnartzeko; horixe baita, azken batean, parte-hartzaileek lantegitik gehien baloratzen duten alderdia.





## ARTE PLASTIKOAK

Formatzailea: Ustaritz Betelu

Arte disziplina desberdinak ezagutuko ditugu, hizkuntza grafikoa, teknika piktorikoak, teknika eskultorikoa, estanpazioen teknika, arte urbanoaren eta land artearen inguruko nozioak... eta guztiekin obra desberdinak sortuko ditugu.

Eguna: Astelehena
Ordua: 18:30 -20:00
Hasiera: Urriak 9
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

## HIRI LITERARIOAK ETA BEGIRADA FEMINISTAK

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, espazio urbanoaren edo hiriko geografiaren eraikuntzaren eta errepresentazioaren inguruko hausnarketa abiatuko dugu; eta bestetik, begirada eta irakurketa feminista. Bidegurutze horretan, hiri literarioen inguruko gogoeta-bideak zabaltzea izango dugu helburu nagusi, betiere ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: zein hiri literario garatu dira euskal literaturan? Hiri literario horiek zer genero-ikuspegi irudikatu dituzte? Hiriak irudikatzean, nolako proposamen feministak egin dira? Begirada feministak eratu ohi du hiri literario jakinik? Irakurleok nola eraikitzen dugu geure hiri(ar)en eta hiri literarioaren arteko harremana?
Horretarako, ikastaroaren metodologia praktikoa eta parte-hartzailea izango da. Literatura testuen irakurketa eginez, parte-hartzea eta eztabaida bultzatuko dira.

Eguna: Osteguna, hilabetean behin
Ordua: 19:00 -21:00
Hasiera: Urriak 5
Hizkuntza: Euskara
Antolatzailea:
Berdintasun Saila

## BATUKADA FEMINISTA

Formatzailea: Arantxa Vicedo eta Ainara Sarasketa

Musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera talde-lanean aritzeko, sormena landu eta autoestimua igotzeko.
Irudimena landu eta besteak entzuten ikasteko. Emakumeok kalera irten eta espazioak okupatu bitartean jendeari gozarazteko.

Eguna: Asteazkena
Ordua: 18:30 -20:30
Hasiera: Urria
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



## DENBORAREN BANKU FEMINISTA

Talde autogestionatua

Dirurik gabeak baina aberatsak gara. Askotan ez dugu dirurik behar, baizik eta, aukera izan zerbitzuak eskuragarri izateko eta elkar trukatzeko.

Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



## JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Dinamizatzailea: Beatriz Zalakain

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

Eguna: Asteartea
Ordua: 16:00 - 18:00
Hasiera: Irailak 14
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Berdintasun Saila eta Kulturaniztasun Saila

artibismoa | autonomia ekonomikoa | kulturartekotasuna

# TAILERRAK



## ARTEAREN HISTORIAREN BEGIRADA FEMINISTA BAT

Formatzailea: Lola Roldan

Ikastaro bat egingo dugu non obra artistikoen eta materialen berrirakurketa bat egingo dugun, tradiziozko irudi antropozentrikoa alda dadin, Arte historian emakumeak ikustarazi ditzagun eta merezi duten lekua hartu dezaten. Horretarako, Artearen historiaren begirada feminista bat garatu behar dugu, denboraldi artistiko desberdinetan emakumeok eduki dugun garrantzia ezagutzea ahalbidetuko duena.

Eguna: Hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 20:30
Hasiera: Urriak 4
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

## KLOWN

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Klown antzerki teknikaren bidez, bizitzan umore gehiago jarri nahi duten emakumeei zuzendutako tailerra, irribarrea erdigunean jarriz. Jokuaren bidez, sexo-genero eraikuntzarekin zerikusia duten zentsurak apurtzera dago zuzenduta tailer hau. Helburu nagusia dibertitzea eta geure buruaz barre egitea da, umorearen bidez ahalduntzeko baliabideak hartzen ditugun heinean.

Eguna: Astelehena
Ordua: 18:30 - 20:00
Hasiera: Irailak 18
Amaiera: Urriak 16
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

artibismoa sexualitatea autonomia eta makinak

## RAP FEMINISTA

Formatzailea: Furia

Rapa gustuko duzu? Ba al dakizu zer den? Jakin nahi al duzu? Etorri eta ezagutu raparen historia, nola egiten den...

Eguna: Ostirala
Ordua: 17:30 - 19:00
Hasiera: Irailak 15
Amaiera: Abenduak 1
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea



## SEXUALITATEA: “EL SEXO PARA EL SEGUNDO SEXO”

Formatzailea: Irantzu Varela

Tailer hau sexualitatea askatasun gune bezala birpen-tsatzera, parte hartzaileak ahalduntzera eta geure gorputzaz disfrutatzera zuzenduta dago. Halaber, sexuak maitasun erromantikoaren ideolo-giarekin daukan lotura apurtzeko lan egingo dugu eta SEXUA gaia landuko dugu konfort, errespetu eta seguritate leku bat sortuz.

Eguna: Ostirala, hilabetean behin
Ordua: 18:00 -20:00
Hasiera: Irailak 29
Amaiera: Azaroak 24
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea



## BRICOLAJERA

Formatzailea: Goizalde Larraza

Emakumeek aukera gutxi izan dugu bri-kolajearen mundua ezagutzeko. Ikastaro honetan, beldurrak eta estereotipoak apurtuz, oinarrizko kontzeptuak landuko ditugu.

Eguna: Osteguna
Ordua: 18:30 -20:30
Hasiera: Urriak 5
Amaiera: Azaroak 30
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

# ZERBITZUAK

## LEGE AHOLKULARITZA

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerritartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen Elkartea

Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduarekin

## GIZARTE AHOLKULARITZA

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Elkartu

Ostirala
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin

## ETXEKO LANGILEENTZAKO AHOLKULARITZA

Eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

Egilea:
Ana Lopez eta
Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

## AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA GIZARTE ESKU-HARTZEA

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alarguntasuna...
Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Asociación Arrats

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin



## "IGUÁLATE" IKASKETAK HOMOLOGATZEKO KANPAINAK.

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeko aholkularitza.

Egilea:
Bidez Bide

Osteguna
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin

## NORBANAKOAREN JABEKUNTZARAKO GUNEA

Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

Asteazkena
10:00 - 15:00
Hitzorduarekin

## ORDENAGAILU ETA INTERNET ZERBITZUA

Astean Zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 -21:00

## AHOLKULARITZA, LAGUNTZA TALDEA

Errotutako jarrerak eta erruduntasun sentimenduak landu nahiz aldatzeko. Indarkeriari aurre egin eta autonomia areagotzeko.

Egilea:
Aizan

Asteartea, hamabostero
14:30 -16:00
Hitzorduarekin

## BILUZIK MUNDURA

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
Lahia Nahia
Sexologia Elkartea

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin





## DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

ORDUTEGIA
10:00 - 21:00

Helbidea:
Okendo 9,  20004 Donostia

Telefonoa:
943 48 34 70

E-mail:
info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:
donostiakoemakumeenetxea.com

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

Donostiako Emakumeen Etxea Elkartea
Asociación Casa de las Mujeres